

Zer-nori-nork

Objektu zuzena (**zer**) singularra edo plurala denean.

Adibidea:

- Objektu zuzena singularra:

Zuk **Peruri** **sagar** **bat** eskaini **diozu**.

- Objektu zuzena plurala:

Zuk **Peruri** **mahats** **batzuk** eskaini **dizkiozu**.

Aukera ezazu esaldiari dagokion adizkia:

1. Aitak niri galtzerdi moderno batzuk erosi _____ .
2. Zuk Mireni lore-sorta bat oparitu _____ haren urtebetetzean.
3. Seme-alabek eskolatik egindako marrazkiak ekarri _____ guri.
4. Lotarakoan neba-arreba guztiei musu bat ematen _____ nik.
5. Markelek Ziortzari margo guztiak utzi _____ .
6. Anaiak zuri autoa laga _____ Lanestosara joan zaitezten.
7. Frontoian Julenek pilotakada itzela eman _____ joko-lagunari.
8. Norbaitek baldekada bat ur bota du eta prakak busti _____ guri.
9. Txakur horrek haginka egin _____ gizon horri
10. Trastelekuko burdinak saldu _____ nik txatar-biltzaileari.
11. Ordenagailuko sagua hondatu _____ zuei nebak.
12. Koldok bideo batzuk utziko _____ lagunei.
13. Otsoek ardi batzuk hil _____ artzainei.
14. Postariak bankuko gutuna sartu _____ zuei postontzian.
15. Amamak bilobari ipuinak irakurtzen _____ gauero.